


Bezeroak behin lortuta, hauek mantentzeko harremana zaindua izan behar dugu. Gure ideia behar dutenean, produktua bezeroei helaraztea eta gurekin kontaktuan jartzea erreza izatea nahi dugu. Horrela izan dadin, bezeroen atalean azaldu bezala, interneten bidez edota dendetan ikusita eskuratu dezakete. Dena den, behin produktua hainbat etxebizitzetan instalatuta, kaletik ibiltzerakoan, erosle posible gehiagok ikusiko dutenez, ospea lor dezake eta bezero gehiago erakarri.

Gainera, produktua behin erosita, arazoren bat izatekotan, hainbat irtenbide bilatu ditugu. Biek web orriarekin dute zerikusia. Lehenik eta behin, dagoen arazoaz jakinarazteko enpresari, aplikazioan sartu eta atal bat egongo da horri egokituta. Honen bidez, lehenengo metodoak, modu eraginkor eta azkar batean, gure aplikazioan egongo den bezeroekiko-arreta zenbaki bat eskainiko du, horrekin kontaktuan jartzeko enpresako pertsona batekin eta zer konpondu behar den jakinarazteko. Segun eta zer azaro mota den, guk dagokien enpresarekin kontaktatuko genuke hura konpontzeko gure bezeroek esfortzurik egin gabe.

Horretarako, **aplikazioan gure kontaktua jarriko** genuke arazoren bat egonez gero gurekin kontaktatu ahal izateko modu erraz batean. Arreta zenbakia aplikazioko pantailaren iskin batean egongo den telefono baten irudia aukeratzearekin nahikoa izango litzateke pantailan telefono zenbakia agertzeko, eta bertatik deitu ahal izateko, konplikazio barik.





Esan bezala, web orri bat sortuko dugu jendeak gure enpresari buruzko informazioa izan dezan. Hemen atal ezberdinak ikus ditzakegu:

- produktuaren deskribapenarekin + irudiak
- erosteko aukerarekin
- gure kontaktua: harremanetan jartzeko aukerarekin (telefonoa, posta...)

Gure **web orrialdean** ere gure kontaktua jarriko dugu.

Gainera, pertsonalki **gure bulegoan hitz egitea** aukera bat izango da, nahi dutenezat, gure enpresara deitu eta hitzarmen bat kontzertatuz. Arazoa zein den identifikatzerakoan, konponbide bat aurkeztuko genieke bezeroei.

Bizitzen ari garena kontuan hartuta (covid19a) irtenbideak ere baditugu, hala nola, **meet bidezko hitzarmenak** eskuragarri egongo dira.